

IKASTETXEETAN EGINDAKO APLIKAZIOAREN ONDORIOZKO OHARRAK.

BETIZU.

A EREDUA, 4. MAILA: AZALPENA.

Testuak 157 hitz ditu.

LAGINA: 6 ikastetxe, 7 ikasgela, 132 ikasle.

Testua: Etena da testua, hiru parte diferente ditu: telebista klubaren bazkidea egiteko informazioa, programazioa eta klubak saltzen dituen hainbat produkturen berri ere ematen da horretan. Ez da ikasgelan lantzen den ohikoa. Bederatzi galdera egin ziren, horietatik 4k berariazko informazioa bilatzea zuten helburu; 4k, interpretazio bat garatzea; eta 1k, testuaren edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa egitea.

Emaitza: Bataz besteko puntuazioa **6,54** izan zen.

Galdera bakoitzaren erantzun egokia eman zuten ikasleen ehunekoa:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10	G11
86,05	51,16	76,75	71,32	60,47	65,12	62,79	56,98	57,36	(*)	(*)

Zuzenketak: Erantzunen formatua batu egin da. Erantzuteko lauki guztiak ezkerrean jarri dira.

Bi galdera berri erantsi ziren: bata, testua bere osotasunean ulertzeko trebetasuna neurtzeko; bestea, testuaren edukiaren gaineko hausnarketa egiteko.

Ondorioak:

Aplikazioa egin ondoren, probak 11 galdera izan behar zituela erabaki zen.

Galdera horiek hurrengo trebetasun hauei dagozkie:

1T (informazioa bilatzea)	G1, G2, G3, G6
2T (testua bere osotasunean ulertzea)	G10
3T (interpretazio bat garatzea)	G4, G5, G7, G8
4T (edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa)	G9, G11

Puntuatu nahi izanez gero, galdera bakoitzaren balorazioa honakoa izatea proposatu zen:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10	G11
1	0,5	0,5	0,5	1	0,5	1	1	1	1,5	1,5

Gutxienezko puntuazioa: **5**

Puntuazio horretatik behera irakurriaren ulermena ez da ontzat joko.

Aztertu egin beharko da zein galderatan egiten duen hutsa eta zein trebetasun diren landu behar direnak.

(*) *galdera berriak dira eta ez ziren aplikazioan testatu.*